2010-X-01
Número **314.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela-sindikatua.org

# astekaria

## EDITORIALA

### Bat ala beste

**Pasatu den irailaren 29ko greba egunaren ostean hausnarketarako garaia omen dela esaten digute ezker eta eskuinetik. Zertara dator orain hausnartu behar hori? Zerk eragin du honelako eskaera guri zuzentzea? Norberak ikusi beharko du zein nolako 29a eta zergatik aukeratu duen: ekainekoa ala irailekoa.**

**ELAn, gehiengo sindikalarekin batera, ekainaren 29ko hautua egin genuen, iazko maiatzaren 21ean egin genuen bezalaxe. Gure ustetan, uneko erantzunak eman behar dira, eta ez langileen aurkako neurri irmoak hartu eta gero. Zeren itxaropenean egon dira zain? Zer eskuratu nahi zuten itxarote luzean egon direnek?**

**Guk eginiko aukeran ez da aurreikusten *elkarrizketa soziala*k ezer onik emango duenik langile jendearentzat. Aldiz, orain arte frogatutakoaren arabera, gobernu eta patronalei men egiteko bilakatu da elkarrizketa hori. Barka, diru iturriak eskuratzeko ere. Euskal langileen mobilizazioak ezin dute izan itxurakeria hori errekuperatzeko, batzuk desiratzen duten legez. Are eta gehiago esan behar dugu: bertako langileen errealitatea eta nahiak errespetatu beharra dute, gure lan esparruan erabakiak guk har ditzagun. Bestelako nahiek Espainiaren esparrua hortxe dute eta hori ere nabarmendu da iraileko deialdian.**

**Guk eginiko aukeran ezinezkoa da helburuak eta ekimenak konpartitzea eskubideen murrizketara eraman gaituen eszenatokia errekuperatu nahi dutenekin. Soka horretatik etorriko dira negoziazio kolektiboaren erreforma eta pentsioen erreforma ere. Horietan konplizeak izan nahi dutenek bere prestutasuna agertu dute edukiak partekatzeko. Partekatze horretan murrizketa gehiago etorriko dira, ezbairik gabe.**

**Guk eginiko aukeran ekainaren 29koa besterik ez dago: euskal langileak hor daude eta hori da gure euskarririk garrantzizkoena. Bestelakoan egon direnek, errealitatea egoskorra baita, hausnartu beharko dute zeinen aldeko hautua egiten duten.**




## Adolfo Muñoz, Txiki, secretario general, repasa la coyuntura política

# "SON NECESARIOS PASOS UNILATERALES"

**El secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, *Txiki*, analiza los últimos acontecimientos del panorama político de Euskal Herria.**

**-ETA ha realizado en el último mes varias declaraciones... ¿Qué opinión le merecen a ELA?**

-La distensión anunciada es una buena noticia. A partir de ahí, desde el primer momento dijimos que hay proceso si se dan pasos unilaterales y ETA tiene que darlos; tiene que llegar a la Declaración de Bruselas en la que se le pide un alto el fuego, permanente y verificable por una Comisión internacional. Llegar a Bruselas debe ser sinónimo de irreversibilidad y debe ser entendido como un punto de inflexión imprescindible en el proceso.

**-¿Y la posición del Estado?**

-Al Estado hay que moverlo, no hay que acompañarle; hay que exigirle pasos que favorezcan la distensión. El Estado pone obstáculos, complica las cosas. Su actitud no es una sorpresa. Poner obstáculos es detener a personas implicadas en la búsqueda de soluciones, son los malos tratos en dependencias policiales que no se investigan, es una política penitenciaria inhumana, la prohibición de manifestaciones, la negativa a reconocer los derechos civiles y políticos a personas y organizaciones... todo bajo la maléfica e interesada construcción del "todo es ETA".

**-El Estado llega a prohibir manifestaciones convocadas por exconsejeros del gobierno de Gasteiz.**

-Con la inestimable colaboración de Ares y su gobierno. Padecemos una legislación de excepción, con una aplicación donde se confunden el poder ejecutivo y judicial, con ausencia de principios democráticos. ETA no puede ser excusa, y menos desde el ámbito vasco, para dar cobertura a un Estado autoritario que vulnera derechos. En España la agenda la marca la derechona que, desde un gran poder mediático, influye en la derecha política y en el gobierno. Es la víscera la que orienta la política y eso complica las cosas. Pero no hay otro camino que seguir.

**-La declaración de Bruselas también pide cosas al Estado.**

-Los firmantes de la Declaración de Bruselas exigen al Estado reciprocidad. Si esa reciprocidad es negada, a buen seguro que la comunidad internacional tiene algo que decir. Muchas de las cosas que pasan en Euskal Herria se tapan con el manido argumento de la existencia de una organización armada. Llegar a Bruselas debe suponer abordar



en parámetros diferentes un conflicto que es político y que aflore en toda su dimensión.

**(Sigue en la página 2)**

## Langileon kontrako politikekin amaitzea exijitu du ELAk Bruselasen

# EUROPAKO LANGILERIA BORROKAN

Europako Sindikatuen Konfederazioak deituta irailaren 29a Europako Ekintza Eguna izan zen. Ehunka mila langile elkarretaratu ziren Europako hainbat herrialdeetan deitutako protestetan. Eguneko ekitaldi nagusia Bruselasen egin zen; manifestazio erraldoi batek Europa osotik joandako milaka eta milaka langile bildu zituen. Orotara, 30 herrialdetako 50 sindikatutako ordezkariak elkartu ziren.

ELAk ere ordezkaritza zabala bidali zuen Bruselasera. Nazioarteko arduradun Laura Gonzalez de Txabarrik nabarmentzen duenez, Europa osoko gobernuek iragarritako austeritate planek ondorio larriak izango ditu langileentzat. "Langileok ez genuen krisia sortu, baina guk ordaindu behar dugu. Orain arteko eskarmentuak ELAk aspaldi esan zuena berresten du: iragarritako neurriek krisia areagotu besterik ez dute egingo. Bestelako politikak behar ditugu, eta horiek lortu aldera mobilizatzen jarraituko dugu".

Euskal Herrian bezala, Europa osoan kolokan daude hamarkada luzeetako borroken ostean lortutako eskubideak. Horregatik mobilizatzen jarraitzeko deia luzatzen du ELAko nazioarteko arduradunak. "Herrialde ezberdinetan izandako ekimenek agerian utzi dute gobernuen politika ekonomikoaren aurka erantzun bateratu orokor bat ematearen garrantzia".



(Viene de la página 1)



**-ELA ha valorado positivamente los pasos dados por la Izquierda Abertzale ilegalizada.**

-La Izquierda Abertzale ilegalizada ha dicho con claridad que su apuesta política es Zutik Euskal Herria, que las vías son estrictamente civiles y democráticas y que esa ponencia vincula a todas las organizaciones; que todas las organizaciones deben llegar a ese punto. ELA está de acuerdo con esa conclusión.

**-¿ELA es optimista en relación al desarrollo de este proceso?**

-Sí. Por necesidad. Necesitamos una solución. Además, la experiencia acumulada de procesos anteriores debería ayudar a conducir el comportamiento de los agentes principales. Eso no significa que el resto seamos indiferentes; significa que hay decisiones estratégicas que nadie puede tomar por otro, que no se pueden sustituir.

**-¿Y la colaboración necesaria para la confrontación política con el Estado?**

-Esa colaboración imprescindible requiere de varias cosas: principios acordados, confianza, compromisos que vinculen en el trabajo real, no exclusión de nadie… y separar aquello que definamos como estratégico de la lucha partidaria, de la lucha de espacios. Hay que ver si se es capaz, en lo general y en cada ámbito concreto de trabajo. Los españoles lo han hecho y nosotros no. La lucha de espacios partidaria es legítima pero si los esfuerzos van solo ahí los elementos de colaboración quedan muy debilitados. Además, en el corto hay otro elemento objetivo a tener en cuenta: la izquierda abertzale ilegalizada tiene pleno derecho a medirse electoralmente.

**-¿Cuando hablas de cada ámbito concreto te refieres al sindical?**

-Sí, nos referimos a la aportación más genuina que el sindicalismo desde sus propios intereses hace a la construcción nacional. Y desde el convencimiento, sin complejos, de que el sindicalismo abertzale hace muchas cosas en una fase muy dura, con una gestión compartida entre capital y gobiernos para erosionar derechos laborales y sociales, con una muy preocupante relativización de la democracia y de la participación social que están bajo mínimos…, con una práctica política entregada, servil, que ha decidido, además, combatir el hecho sindical. Nuestro punto de vista para la construcción nacional no es neutral: es el de un sindicato de clase y abertzale y desde la defensa de esos intereses quiere colaborar.

**-Y una prioridad, aunque cueste, es LAB…**

-Efectivamente. ELA y LAB tenemos un reto por delante en lo sindical, social y político. Sin límites previos, pero desde la autonomía de nuestro ámbito y nuestros intereses. Para el día después del que tanto se habla, lo importante es qué estrategias compartidas tenemos en nuestro ámbito, qué valor damos al trabajo en común, qué compromisos adquirimos… El sindicalismo abertzale tiene un gran reto. No representamos algo residual. Definir eso y eliminar aquellos elementos que restan eficacia a la intervención sindical, social y política es la forma más útil de aportar a la construcción nacional.

**-Y en este contexto, se vuelve con el Estatuto…**

-El Estado logra que la referencia política sea algo completamente agotado. Y lo hace planteando un sistema de negociación donde un incumplimiento unilateral de más de 30 años termina suponiendo un gran beneficio político para él. Es un modelo inaceptable.

**-Ese es el significado del acuerdo del PNV sobre la transferencia de políticas activas…**

-Sí, realizado al margen por completo del sindicalismo abertzale. Zapatero gana lo que quiere: se asegura, ni más ni menos, que el apoyo a todos los recortes sociales que tiene en cartera (además de la reforma laboral ya hecha) y obtiene la renuncia a la posición política que se mantuvo en gobiernos anteriores.

El resultado no puede ser más preocupante. Supone aceptar que la decisión sobre las políticas activas reside en el Gobierno español. También supone renunciar a las políticas pasivas. Y, en materia de financiación, es un mal acuerdo: el Gobierno vasco, ni recaudará las cotizaciones ni tendrá garantizados los recursos.

La diferencia entre 300 y 477 millones son las bonificaciones a la contratación que además, con la formula adoptada, va a dar saldo negativo para las finanzas vascas… A Zapatero no le ha importado el *descoloque* de López, pero ese hecho no hace bueno el acuerdo en modo alguno. Esa partida la ha ganado Zapatero. Sólo la renuncia a la posición política permite encontrarse con un Estado neo-centralista como el español.

## ELA denuncia que el acuerdo PNV-PSOE niega a la CAPV capacidad de decisión sobre las políticas de empleo a aplicar

# "NOS VAN A IMPONER UN MODELO DE POLÍTICAS DE EMPLEO YA FRACASADO EN EL ESTADO ESPAÑOL"

ELA ha criticado el acuerdo al que llegaron PNV y PSOE el 22 de septiembre para traspasar a la Comunidad Autónoma del País Vasco diversas materias de trabajo, empleo y formación profesional, tanto por la forma en que se ha hecho como por el contenido de la transferencia en sí.

Mikel Noval, responsable de política social, asegura que "no es cierto que se vayan a transferir las políticas activas de empleo. El Gobierno Vasco se limita a ser un mero agente gestor y colaborador de las políticas decididas en el estado español, con el agravante de que las políticas de empleo seguidas allí son un verdadero fracaso, como se constata con los elevados niveles de paro, precariedad y siniestralidad laboral".

ELA denuncia, también, que el PNV ha renunciado a una financiación acorde a los criterios del Concierto Económico, conllevando una pérdida económica considerable, así como que se haya aceptado una transferencia coja, que separa la gestión de las políticas activas de las pasivas. "El acuerdo supone una dejación competencial importante, ya que se renuncia a la recaudación de las cotizaciones a las que tenemos derecho, y ni siquiera se exige el compromiso de que el Gobierno español traslade al Gobierno vasco el equivalente a la recaudación que por estas cotizaciones gestiona la Tesorería de la Seguridad Social. Con este acuerdo, la CAPV es más España".

### PROCESO OSCURANTISTA

Janire Landaluze, del gabinete de estudios, critica, por su parte, el total oscurantismo de las negociaciones. "ELA no ha sido ni informada ni consultada a pesar de tratarse de una materia vital para la clase trabajadora". Landaluze ha añadido que este acuerdo sólo beneficia a los miembros de la denominada Mesa de Diálogo Social de la CAPV (Gobierno Vasco, Confebask, CCOO y UGT) ya que les va a permitir gestionar los fondos en materias de empleo y formación. "Y como está ocurriendo en formación continua o salud laboral, no cabe duda de que van a ser muy generosos consigo mismos a la hora de decidir la asignación de ingentes cantidades de dinero público, sin que ello repercuta en mejoras de ningún tipo en el empleo", augura.

### ZAPATERO, GANADOR

En su valoración de esta transferencia, el secretario general de ELA asegura que "el acuerdo es un fracaso" y que el "único ganador es Zapatero", destacando el hecho de que el acuerdo entre el PNV y el PSOE se sitúa dentro de un pacto más amplio, según el cual el PNV se compromete a la aprobación de los presupuestos generales del Estado para 2011. "En una coyuntura muy complicada Zapatero va a conseguir que se aprueben los presupuestos más restrictivos desde la Transición". "Estos presupuestos –añade– con un recorte del 7,7%, son los más antisociales de los últimos años. Recogen, por ejemplo, que las pensiones se van a congelar el año que viene. Así, el PNV, que recientemente ha permitido aprobar la reforma laboral, se alinea con el gobierno español, a la cabeza de los gobiernos con una práctica más neoliberal de la Unión Europea".

Txiki afirma que para conseguir una transferencia coja y sin capacidad de decisión no hacía falta esperar 31 años, al tiempo que ha mostrado su convencimiento de que el modelo de negociación que se ha seguido demuestra, una vez más, la muerte del Estatuto.

El secretario general de ELA afirma que PNV y gobierno central han cometido un fraude contra los intereses de "quienes queremos unas políticas de empleo propias, encaminadas al pleno empleo de calidad y a llevar a cabo un diseño de políticas formativas pegado a las necesidades reales de nuestro país".

## '2010erako langileria gastuaren murrizketarako' instrukzioak arrisku bizian jartzen du hezkuntza sistema

# EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZA PUBLIKOARI ERASOEKIN DARRAI




ELAk hamaika aldiz salatu ditu Jaurlaritzak arlo publikoan egindako murrizketak eta horrek eragingo dituen ondorio kezkagarriak. Irakaskuntzako arduradun Xabier Irastorzak nabarmentzen duenez erasoak aspalditik datoz. "Soldata murrizketak aplikatu ondoren, gobernuak lanpostuen amortizazioak, lan-kargen handitzea eta bajak estaltzerakoan atzerapenak planteatzen ditu".

Orain Eusko Jaurlaritzak atal berri bat ireki du zerbitzu publikoen aurkako erasoan, *2010erako langileria gastuaren murrizketarako* instrukzioaren bidez. Jarraibide honek zerbitzu publikoak larriki narriatzen ditu, baina irakaskuntzan berebiziko eragina izango du. Hauek dira instrukzioak hezkuntzan izango dituen ondorio kaltegarrietako batzuk.

- 5 egunetik gorako ordezkapenak besterik ez dira baimenduko, beti ere aldez aurretik baja 5 lan-egunetik gorakoa izango dela ziurtatzen bada. Ordezkapenak egin daitezkeen ikastetxeen zerrenda bat ateratzeko mehatxua ere luzatzen du administrazioak.
- Sorturiko hutsuneek edo lana handitzeak sorturiko eginbeharrak gainerako langileek betetzea behartzen du.
- Proiektu zerbitzu eginkizun berririk ez da baimenduko.
- Baimenak zerbitzu beharren arabera moldatuko dira.
- Administrazio osoan eta modu orokorrean antolakuntzarako ezinbesteko ez diren lanpostu guztien amortizazioa planteatzen dute, berdin izanik lanpostuak jaberik duen ala ez. 2010. urtean erretiro, heriotza edo erabateko ezintasunagatik hutsik geratzen diren lanpostuak desegiteko proposamena.
- Lanpostu berrien sortzea ere bertan behera geratzen da.

"Administrazio publiko osoan gauzatuko dituzten neurri hauek guztiak izugarrizko mehatxua suposatzen dute hezkuntzako langile guztientzat".

"Finean, –gaineratzen du Irastorzak– hezkuntzaren kalitatea eta irakaskuntza publikoa bera ere arrisku bizian jartzen dute. Badakigu nortzuk ordainduko dituzten erabaki hauen ondorioak: hezkuntza arloko langileek eta ikasle eta hauen gurasoek".

"ELA neurri hauen erabat kontra agertzen da. Egoera hauek antzematen dituzten heinean salatzera gonbidatzen ditugu langileak, eta erasoak eskatzen duen tamainako erantzuna emateko lan egitera konprometitzen gara".

### CONFLICTO COLECTIVO POR LAS REDUCCIONES SALARIALES EN LA ENSEÑANZA CONCERTADA DE LA CAPV

La patronal ha dado a conocer su postura con respecto a las reducciones salariales de la enseñanza concertada: llevarán a cabo los recortes impuestos por la Administración con efecto retroactivo desde junio. ELA considera muy grave la medida adoptada por las patronales, que hacen a los trabajadores y trabajadoras de los centros concertados los principales paganos de la crisis.

Ante el anuncio explícito de la patronal de aplicar los recortes y la consumación de los descuentos, ELA ha iniciado el procedimiento de conflicto colectivo, interponiendo la denuncia previa en el Preco, que afectará a todos los centros concertados de la Comunidad Autónoma Vasca.

Este conflicto colectivo es independiente de las reclamaciones individuales de cantidades que cada trabajador/a tendrá que presentar, para que, en caso de resolverse favorablemente el conflicto colectivo, pueda ser indemnizado.

## Del 5 al 6 de octubre, jornada de encierro en varios centros municipales

# LOS/AS TRABAJADORES/AS DEL AYUNTAMIENTO DE GASTEIZ RETOMAN LAS MOVILIZACIONES POR EL CONVENIO



*Begoña Vazquez*

Tras el parón veraniego, el comité de empresa del ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz (ELA, 13; CCOO, 9; LAB, 4; USO, 2) ha decidido retomar las movilizaciones por el convenio. El viernes 23 de septiembre tuvo lugar una concentración de delegados/as coincidiendo con la celebración del pleno municipal. Asímismo, se van a llevar a cabo asambleas y reparto de folletos informativos por todos los centros municipales. El punto fuerte de esta nueva serie de movilizaciones –continuidad de las realizadas en julio– es la convocatoria de una jornada de encierro, del 5 al 6 de octubre, en los centros de trabajo. Tal como explica Begoña Vázquez, responsable de ELA en el Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz, "el objetivo es que participe el mayor número de trabajadores/as de la plantilla posible". "El encierro –añade– se llevará a cabo en varios edificios concretos para que se visualice mejor". La jornada de movilización se completará con pancartas alusivas y una caravana de coches.

Los/as trabajadores/as municipales de Vitoria-Gasteiz denuncian que llevan desde 2.008 sin poder negociar el convenio. Ese año, desde el equipo de gobierno se les instó a esperar al resultado de las negociaciones del Udalhitz. Sin embargo, cuando éste se firmó renunciaron a su aplicación, optando por prorrogar el convenio firmado por CCOO en 2006, con vigencia de dos años.

Esa decisión ha supuesto desde entonces una pérdida del 3,2% del poder adquisitivo de estos trabajadores/as respecto a otros de la administración local. A este recorte hay que sumarle que en el pleno de julio el consistorio aprobó la reducción salarial de los empleados/as municipales, y luego, en acuerdo de Junta de Gobierno, eliminaron el artículo del convenio que recoge el 100% de Incapacidad Laboral Transitoria en caso de baja por enfermedad. "Todo con la excusa de que hay que ahorrar dinero", denuncia Begoña Vázquez.

Ante toda esta serie de imposiciones, en julio los trabajadores/as municipales de Vitoria-Gasteiz llevaron a cabo una concentración y ahora, tras el parón veraniego, retoman las movilizaciones.

### Patronala ez da aurkeztu Gipuzkako Metaleko hitzarmeneko mahaiko bilerara

# "ADEGIK EZ DU NEGOZIATU NAHI"




ELA eta LAB sindikatuek Gipuzkoako Metaleko hitzarmeneko negoziazio-mahaiko bilera deituta zuten irailaren 28rako. Hala ere, ez zen egin. Adegi ez zen aurkeztu hitzordura, eta negoziatzeko inolako borondaterik ez duela agerian utzi zuen, beste behin. Gipuzkoako metaleko arduradun Jose Luis Vidalek salatzen duenez, patronalak negoziazio kolektiboari egindako eraso berri baten aurrean gaude. "Uko egin diote negoziazio-mahaiaren bileran parte hartzeari".

Vidalen ustez onartezinak dira bilerara ez agertzeko Adegik jarritako aitzakiak. "Urrian eta azaroan deitutako zazpi greba egunak negoziazio mahaira ez agertzeko aitzakia besterik ez da. Lehenago ere hiru hilabete luze izan dituzte, eta ez dira gai izan euren eskaintza aldatzeko. Grebarako deia gainean duen honetan bazterrak nahasten hasi da. Patronala lotsagarri jokatzen ari da Gipuzkoako metalgintza alorreko langileen aurrean".

ELA-Metaleko Gipuzkoako arduradunak argi du iragarrita dauden zazpi greba egunak arrakastatsuak izango direla. "Maiatzean eta ekainean egindako lau greba egunak historikoak izan ziren, erabateko jarraipena izan zuten. Orain, langileen haserrea are eta handiagoa da. Adegi honen guztiaren jakitun da, eta horregatik dauka egun jarrera lotsagarri hau".

"Gezurrak esan eta bazterrak nahastu, hori da Gipuzkoako patronalak egiten dakien bakarra. Egindako azken negoziazio mahaiaren ostean proposamen berri bat aurkeztu zuela esan zuten hedabideetan, eta aurrerapen gisa azaldu zuten. Ba, horra zer ulertzen duten aurrerapen gisa: urteko lanaldia 55 ordutan luzatu, malgutasuna areagotu eta soldatak murriztea. Hori guztia ezkutatu nahi dute errealitatea faltsutuz".

Vidalek mezu zuzena luzatzen die metalgintza alorreko langileei. "Adegik Gipuzkoako metal arloko langileoi ezarri nahi digu Madrilen negoziatzen ari den lan hitzarmena, gure soldatak eta lan-baldintzak kaskartzeko. Borrokatu beste biderik ez dugu hori saihesteko".

*"Adegi no quiere negociar el convenio del metal de Gipuzkoa"*

## MOVILIZACIONES EN LA RESIDENCIA AMMA DE NAFARROA

La mesa de negociación del grupo Amma Navarra se bloqueó el día 30 de marzo, y, desde entonces, la plantilla ha venido realizando diferentes movilizaciones, desde concentraciones hasta paros.

Las siguientes movilizaciones que se van a realizar son cuatro días de huelga de jornadas completas en octubre: los días son el jueves 7, viernes 8, jueves 21 y viernes 22.

Según ELA, la actitud que ha tenido hasta ahora y mantiene la dirección es de absoluta indiferencia ante las demandas y necesidades de las trabajadoras.

ELA exige un movimiento claro de acercamiento a las propuestas de las trabajadoras/es que demuestre el debido interés de la empresa para resolver este conflicto.

## Laburrak

**● Jazarpenekin amaitzea exijitzen du ELAk**

ELAk adierazi nahi du kezkatuta dagoela LABek salatu berri dituen gertakariekin, hots, sindikatuko egoitzak eta zuzendaritzako kideak, baita idazkari nagusia ere, bigilantziapean daudela. Honelako jokabideek askatasun sindikalarekin lotutako eskubideak urratzen dituzte, nazioarteko erakundeen hitzarmenek dioten legez; hain zuzen, estatu espainolak ere sinatu ditu hitzarmen horiek.

ELAren ustez, honelako egintzak grina errepresibo gero eta handiagoaren baitan datoz; hau ETAk irailaren 5ean egin zuen adierazpenaren ondotik piztu eta areagotu da. Haatik, erabaki hark Espainiako, Iruñeko eta Gasteizko gobernuen aldetik bestelako erantzun bat eskatzen du: beren erabakiek distentsioa, bakea eta normalizazio politikoa lortzeko lagungarri izan beharko lukete. ELAk indar polizialen buruei exijitzen die jazarpen hau berehala amai dadila.

**● ELA denuncia la inaceptable e inmoral subida de la luz**

La subida del precio de la luz en un 4,8% autorizada por el Gobierno español es una medida antisocial, que pone de manifiesto que el gobierno está al servicio de las grandes empresas, en este caso las eléctricas. Es inaceptable que en la actual situación de crisis, con unos niveles de paro elevados, cuando muchas personas o familias tienen graves problemas para llegar a fin de mes, cuando se agota el presupuesto para las ayudas sociales y se deja a la gente sin ellas, el gobierno de Zapatero decida que es el momento de subir el precio de la luz un 4,8%. Añadidos el 2,6% de enero y el incremento del IVA, el resultado es que el incremento de la factura en 2010 es casi el 10%. ELA recuerda que Iberdrola ha obtenido en los seis primeros meses de este año un beneficio neto de 1.467,2 millones de euros.

**● ELA exige la convocatoria de la mesa de comedores escolares**

El curso escolar ha comenzado con un incremento del 10% en el precio en los menús que se ofrecen en los comedores escolares en los centros educativos públicos. El Departamento de Educación ha realizado esta subida bajo la excusa de mejorar el servicio y las condiciones de trabajo de los trabajadores/as del sector. En opinión de ELA, con esta decisión el Departamento pretende culpabilizar a las trabajadoras del incremento, mientras sus sueldos no han mejorado desde el 2.008 y la mesa de negociación no se reúne desde el 4 de mayo, tras suspender la patronal las reuniones de la mesa negociadora. ELA exige que se convoque dicha mesa y que las empresas subcontratadas para este servicio presenten una oferta que acabe de una vez por todas con la discriminación que sufren las trabajadoras del sector.

**● Recortes en las residencias dependientes de la Diputación vizcaína**

Bajo el lema *Lo que no nos cuentan*, ELA ha iniciado una campaña en las Residencias de la Diputación de Bizkaia para informar a los familiares de los residentes de la grave degradación del servicio prestado a mayores e incapacitados. Según Jesus Mari Larramendi, responsable del sector, se ha producido un descomunal incremento de las cargas de trabajo, lo que repercute muy negativamente en la calidad del servicio que se presta.

**● Nazioarteko Garraiolarien Federazioaren eskutik, *Nekeak hil egiten du* kanpaina**

Garraioko Nazioarteko Federazioak (ITF) nazioarteko kanpaina sindikal bati ekin zion 1997. urtean, errepideko salgaien garraioa gero eta desarautuago eta liberalizatuago zegoela salatzeko. Kanpainaren izenburua hauxe izan zen: *Nekea hilgarria da*. Aurten ere ITFk kanpaina hau antolatu du, hamalaugarrengoz. Ekimenaren harira, ELAko ordezkariek mobilizazio bat egingo dute urriaren 8an Biriatoun, garraio arloan ematen diren lanaldi luzeen aurka kexatzeko.

**www.ela-sindikatua.org**

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.org

Franqueo concertado
nº 08/207